

JARRAIBIDEA, LANEKO ETA GIZARTE SEGURANTZAKO ZUZENDARIARENA, ENPLEGU-ERREGULAZIOKO ESPEDIENTEEK ERASANDAKO PERTSONEN GAITASUNEN AINTZATESPEN ESPEZIFIKORAKO PROZEDURARI BURUZKOA.

1.- SARRERA

Euskadiko Hirutariko Elkarrizketa Mahaiaren 2015eko urtarrilaren 30eko bilcran aho batez onartu zen "Euskadiko Hirutariko Elkarrizketa Mahaia. Balorazioa eta Ekarpenak 2014-2016 Enplegu Planaren 2015eko Ekintza Planari" agiria.

Agin horren hirugarren atalean honelaxe daga jasota:

"3. Enplegu-erregu/azioko espedienteek erasandako pertsonen gaitasunak aintzatesteko sistema.

Lan esperientziaren eta irakaste ez forma/aren bidez eskuratutako lanbide eskumenak aintzatesteko sistema lehen-lehentasunezko politika aktiboa da. Hori dela eta erabaki dugu bultzada berezia ematea politika horri, azkentzeko enplegu-erregulazioko espedienteek erasandako pertsonen kasu zehatzean. Prozedura berezia eta horrekin lotutako beharrezko prestakuntza ezarriko dira kasuan kasuko kualifikazioak lortzeko. Programa horrek 2015ean behar besteko aurrekontua izango du eskariari aurre egiteko".

Horrela beraz, erabakitakoa gauzatze aldera, ondoko prozedura ezarri da.

2.- PROZEDURAREN FASEAK

Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Segurantzaren Zuzendaritzak kontratua azkentzeko enplegu-erregulazioko espedienteen kopia jasoko du, noiz eta hiru lurralde ordezkarietako batek (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa) eta Lan eta Gizarte Segurantzaren Zuzendaritzak jaki narazi badituzte espedienteok, eta hori guztia Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren egitura organikoa eta funtzionala

ezartzen duen apirilaren 9ko 191/2013 Dekretuaren 11. g) artikuluan jasotako eskumenak egikaritura.

Kontuan izanda berdin izapidetzen dela prozedura bai Lan eta Gizarte Segurantzaren Zuzendaritzan eta bai lurralde ordezkarietan, komenigarria da izapide berri bat definitzea, eta eragindako organo guztiek berdin gauzatuko dute, jarraibide honetako hasieran aipatutako agiriaren hirugarren atalean jasotakoa betetze aldera.

Horretarako, behin espedienteak Lan eta Gizarte Segurantzaren Zuzendaritzan edo lurralde ordezkarietan jasota, hala enpresa-batzordeari edo langileen ordezkariari nola erasandako enpresaren ordezkariari jakinaraziko zaie jarraibide honen edukia eta ondoko informazioa aurkeztu behar duela:

- a) Espedienteak erasandako langileen zerrenda, NANak adierazita.
- b) Lanbide kategoria.
- e) Lanpostuan bete dituzten funtzioak eta denbora-aldia edoaldiak.

Ataza hori errazte aldera, jarraibide honekin batera doan eranskinetako ereduak jarriko da enpresentzat eskuragai. Behin eskatu zitzaion informazioa eman enpresak, berehala bidaliko zaio Lan eta Gizarte Segurantzaren Zuzendaritzari.

Harrezkero, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Segurantzaren Zuzendaritzak honako informazio hau bidaliko dio Lanbideko Enplegurako Prestakuntzako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Zuzendaritzari:

- a) Enpresaren izena eta IFZ.
- b) Gizarte-segurantzaren enpresa zenbakia.
- e) Enpresaren jarduerak.
- d) Espedienteak erasandako langile kopurua, izen-abizenak agertzen dituen zerrenda eta euren NANa.
- e) Espedienteak erasandako langileen lanbide kategoria.
- f) Lanpostuetan betetako funtzioak eta bakoitzaren denbora-aldia edoaldiak.

Jarraibide honen ondorioz jasotako datu pertsonalak ondokoak kontuan izanda tratatuko dira: Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzkoa; 2/2004 LEGEA, otsailaren 25ekoa , Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoa; eta 15/1999 Lege Organikoa garatzeko erregelamendua onartzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretu

Vitoria-Gasteiz, 2015eko azaroaren 20a


EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
ENPLEGU ETA OKUPAZIÓNE
POLITIKETIKO SAIALA
Fdo: JOSE JAVIER LOSANTOS OMAR
DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y
DIRECTOR DE TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL

